

GOIARI OMENALDIA OIARTZUNen, IRAILAn

Herrikide agurgarria,

Azken urteetan OIARTZUNgo EMAGINA izan den GOIA ANDUAGA, datorren urriaren amaieran JUBILATUko da. Emakume honen lana, dedikazioa, laguntza, maitasuna eta gertutasuna eskertu asmoz, Oartzungo ama batzuk elkartu gara eta jubilatatu baino lehen, GOIARI AGUR-OMENALDIA ANTOLATZEA proposatzen dugu.

Oartzunen asko gara 10 urteotan GOIA EMAGINA ezagutu dugun emakumeok, eta ehundaka bere laguntzarekin jaio diren haurrak. Gure asmoa, gutun honen bidez, ahoz aho, eta denon artean ahal dugun moduan, Goia ezagutu eta omendu nahiko luketen guztiengana iristea da; hau da, denek jakitea asmo honen berri eta parte hartu nahi duenak horretarako aukera izatea.

Polita deritzogu, EZUSTEKO OMENALDIA izatea, alegia GOIAk ezertxo ere EZ JAKITEA ekimen honi buruz. Horregatik, ABARAXKA ludotekak IRAILAREN 18an, asteartearekin, ARRATSALDEz HITZALDI bat ematera gonbidatu du Goia, eta berak onartu egin du parte hartzea EDOSKITZEari buruzko hitzaldi horretan. Asmoa beraz, hitzaldi horren ostean, berak ESPERO EZ DUEN OMENALDI herrikoia egitea da.

BIDE ezberdinak proposatzen ditugu OMENALDIAn PARTE HARTZEKO:

1. **Lehena:** datorren **EKAINaren 19an, asteartearekin, ARRATSALDEKO 6tan ABARAXKAN** egingo dugun **ANTOLAKETArako BILER**Ara azalduz: zure ekarpena egitera edota prestaketan laguntzera. Ekimenen bat egiteko prest al zaude? Aurkezle lana? Abestu? Dantzatu? Antzeztu?... Edo antolakuntzan laguntzeko prest al zaude? Ongi etorria bilera honetara!
2. **Bigarrena:** "HITZ BAT: ZER IZAN DA GOIA ZURETZAKO?" BIDEO MUNTAIAN PARTE HARTZEA. Horretarako, herritar bakoitzak **ARGAZKI bat HITZ BATEKIN IDATZITA** bidal dezake **goiariomenaldia@gmail.com** helbidera eta jasotako argazkiekin muntai bat egin nahiko genuke OMENALDIAREN EGUNEAN PROIEKTATZEKO eta Goiari zer ekarpen egin digun banan-banan esateko. Ondoren, bideo hau eskura ere eman nahiko genioke DVDan.
* ARGAZKIA ahalik eta ERRESOLUZIO edo KALIDADE ONENArekin, mesedez!
BIDALTZEKO EPEA: **UZTAILAK 31 BAINO LEHEN
3. **Hirugarrena:** **ESKERTZA LIBURUA**n PARTE HARTZEA. Bakoitzak nahi duena eskaini diezaioala GOIARI, orri normal batean egin (DIN A4an): marrazkia, olerkia, bertsoa, ipuina...eta eraman URRATS PAPER DENDARA, GOIAREntzako dela esanez. Orri guztiak bildu, PORTADA polit bat jarri eta ENKUADERNATUTA, OMENALDIAREN egunean LIBURUXKA hau eskura ematea da asmoa.
*URRATSERA ERAMATEKO EPEA: **UZTAILAK 31 BAINO LEHEN**
4. **Laugarrena:** **IRAILAREN 18an**, asteartearekin, ARRATSALDEz GOIARI egingo diogun **OMENALDI**ra azalduz.



ESKERRIK ASKO gure proposamena entzun eta Goia Oartzungo emagin gisa ezagutu eta omendu nahiko luketen guztiengana iristen laguntzeagatik!

Oartzunen, 2018ko maiatzan